

BILBOKO UDALEKO HIRI BERRONERATZEAREN SAILAK SAN IGNAZIOKO IA EHUN KOMUNITATETAN IGOGAILUAK JARTZEA ERRAZTUKO DU

- **Obra sindikaleko 97 atariak dira, guztiak goragailurik gabekoak; 2071 pertsona bizi dira bertan.**
- **Obra sindikaleko etxebizitzek igogailuak instalatzea zailtzen eta garestitzen duten ezaugarri batzuk dituzte, eta izapidetze konplexua dute eraikin babestuak direlako eta bloke bereko atari guztien adostasuna behar dutelako.**
- **Horregatik, Surbisa Berregokipenerako Elkarteak erabaki du aurrerapauso bat ematea, eta igogailua egitea erabakitzen duten atariei pizgarriak ematea eta laguntzea diagnostikoan, proposamenean eta obra bultzatzean, laguntza ekonomikoen leihatila bakar gisa jardunez.**
- **Surbisak Bilboko auzo honetan esku hartuko duen lehen aldia izango da, eta, hala, gainerako esku-hartze eremuekin bat egingo du: Zazpi kaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko langileen auzoa, Irala, Olabeaga eta Zazpilanda.**

(Bilbon, 2021eko ekainaren 17an).-- Bilboko Udaleko Hiri Berroneratzearen Sailak San Ignazioko ia ehun komunitatetan igogailuak jartzea erraztuko du. Surbisa Berregokipenerako Udal Elkartearen bidez izango da eta, gainera, Bilboko auzo honetan esku hartuko duen lehen aldia izango da, gainerako esku-hartze eremuekin bat eginez.

Obra sindikaleko 97 atariak dira, guztiak goragailurik gabekoak; 968 etxebizitza dira eta 2071 pertsona bizi dira horietan. 23 etxaditan batuta daude, eta beste 55 eraikinen ondoan daude, etxadi itxurarekin eta igogailuarekin, baina denak ez dira irisgarriak. Surbisaren bidez, Hiri Berroneratzearen Sailak igogailuak instalatzen eta irisgarritasuna hobetzen lagunduko die jabeen elkartei. Zehazki, bere lana lau urratsetan gauzatuko da: egoeraren diagnostikoa, konponbiderako proposamena, kontratazioa bultzatzea eta finantzaketan laguntzea.

“Gure helburua da igogailuak jartzea bizileku-eraikinetan, pertsona guztiek, bereziki adinekoek eta mugitzeko zailtasunak dituztenek, beren bizi-kalitatea eta ataritik etxebizitzetarako irisgarritasuna hobetu dezaten, errotzea eta autonomia pertsonala eta gizarteratzea sustatuz”, azaldu du Nora Abete Bilboko Udaleko Hiri Berroneratzearen Saileko zinegotziak. “Helburua da pertsonak beren etxeetan bizitzen jarraitu ahal izatea, haien egoera edozein dela ere, eta, beraz, auzoan bizitzearen aldeko apustua egiten jarraitzea”.

Lehenengo urratsetan, Surbisak aholkularitza teknikoa emango du igogailuaren kokapenari eta ezaugarriari buruz, eta aholkularitza juridikoa emango du erabakiak hartzeko:

gehiengoak, formalitateak, deialdiak, plangintza, Surbisan bilerak egiteko aukera, etab. Hori guztia adostasunak formalizatze aldera.

Gainera, kontratazioa sustatuko du, arkitektoak eta kontratak hautatzeko aholkularitza teknikoaren bidez. Behar den finantzaketa lortzeko, laguntza ekonomikoak bilatu, transmititu eta tramitatzen lagunduko du. Azkenik, obran zehar arreta jarriko du berankortasunean, eta aholkularitza emango du lanak irauten duen bitartean sor litezkeen arazoan aurrean.

ZAILTASUN TEKNIKOAK

Obra sindikaletako etxebizitzek igogailuak jartzea zaildu eta garestitzen duten ezaugarriak dituzte. Horregatik, orain arte atari batek ere ez du igogailua jartzeko pausua eman. Esaterako, eskailerak oso estuak dira eta hor ez dago igogailurik jartzetik. Irtenbide bat izan daiteke eskailera eraistea, haren ordean igogailua jartzea eta fatxadatik irteten den bolumen batean eskailera berri bat egitea. Baina hiri-multzo homogeneoa osatzen duten eraikin babestuak dira; horregatik, Bilboko Udalak baldintza zehatzak ezarri ditu bere balioa errespetatzeko eta eraikin guztien estetika berdina edo antzekoa izan dadin.

Izapideak konplexuak dira, bloke bakoitza osatzen duten eraikin guztien igogailuak modu homogeneoan eta errespetuz jartzeko aukera emango duen aurreproiektu teknikoa behar delako eta eraikinak babestearen ondorioz Udalaren oniritzia behar delako.

Horren arabera, SURBISAK laguntza hauek emango ditu:

- Irisgarritasunaren arloko orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu tekniko-juridikoa.
- Egoiliarrentzako eta, bereziki, adineko pertsonentzako arreta pertsonalizatua.
- Leihatila bakarrean informazioa eta izapideak.
- Udalaren dirulaguntzak eta Eusko Jaurlaritzarenak.

INFORMAZIO HITZALDIA

Era berean, duela egun batzuk, Hiri Berroneratzearen Sailak hitzaldi informatibo bat antolatu zuen 97 jabe-elkarteentzat auzoan. Bertan, Surbisa aurkeztu zen, igogailuen instalazioa, zailtasunak, irtenbide teknikoak eta prozesu osoan lagun egitea errazteko. Bilera horretan, bertaratutakoei gonbita egin zieten Surbisari eraikinera bisita teknikoa egiteko eska zezaten, igogailuaren kokapen zehatza, baldintzak eta bizilagunen kezak argitu eta bisita horretan sor zitezkeen gainerako gorabeherak azaltzeko.

Gainera, urrian, Surbisak bulego bat irekiko du auzoan, informazioa eta laguntza behar duten pertsonen hurbiletik erantzuteko. Astelehenetan atendituko dute San Ignazioko Udaltzarian.

HIRI BERRONERATZEAREN SAILA ETA SURBISA

Hiri Berroneratzearen Sailak esku-hartze integrala sustatzen du urian; hau da, hiri-, gizarte- eta ingurumen-gaiei erantzuten die. Horrek esan nahi du uria berroneratzeaz gain, beste gai batzuk ere landu behar direla, hala nola mugikortasuna, espazio publikoa, ekonomia suspertzea, gizarte-kohesioa, hezkuntza, kultura, enplegua eta abar.

Bestalde, SURBISA udal sozietate bat da, Bilboko eraikin, etxebizitza eta lokaletan jabeek egin beharreko birgaitze-lanak sustatzen dituena. Udal sozietateak esku-hartzen duen eremuaren barruan daude Zazpi Kaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Irala, Olabeaga, Zorrotzaurre eta Zazpilanda. Surbisak helburu bi ditu: alde batetik, ondare eraikia segurua, irisgarria eta efizientea izatea eta kalitateko etxebizitzak eskaintzea, eta bestetik, bere eragin-eremuetan bizikidetzaz erraztea. Surbisaren lanaren helburua da bizi-kalitatea lortzea, jarduera sustatzea eta urira itzuliko den aberastasun ekonomikoa sortzea.